



Santa Ageda batzen



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua





Osasun gida

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
* Min-Unitatea
* Inkontinentzia urinarioak
* Kirol medikuntza
* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Ginekologia

M^a Jose Ruiz de Porres DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belauztegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Habe Ikasbil

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhua Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– Errefuxiatuen Aldeko Kirol Zozketa Solidarioan saritutako zenbakiak –

Hainbat elkarteren ekimenez Eibar eta inguruan saltzen ibili diren rifen Errefuxiatuen Aldeko Kirol Zozketa Solidarioa egin dute eta zenbaki sarituak beheko zerrendan daukazue. Zozketaren antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu duten guztiei, "tantanez tantan, elkarlanean laguntzea posible delako". Saritutako hiru zenbaki dagoeneko Eibarren agertu dira, beraz ondo begiratu erositako boletoak, ea sariarik daukaten: 00065 (Markel Alberdiren txano eta sudadera); 00067 (Alberto Inurrategiren motxila eta posterra); 00077 (Alex Txikonen buffa eta 2 poster); 00119 (Alex Txikonen kamiseta eta 2 poster); 00129 (Juanito Oiarzabalaren kamiseta); 00312 (Juanito Oiarzabalaren kamiseta); 00387 (Oihana Kortazarren kamiseta eta 2 zapatila); 01092 (Oihana Kortazarren 2 zapatila); 01121 (Alberto Zerainen kamiseta); 01162 (Abel Barriolaren kamiseta); 01168 (Juan Martinez de Irujoren kamiseta); 01196 (Aitor Mendizabalaren kamiseta); 01242 (Beñat Rezustaren kamiseta); 01275 (Eibar Rugby taldearen sudadera eta kamiseta); 01285 (Eibar Rugby taldearen sudadera); 01508 (Baskoniaren kamiseta); 01537 (Aritz Aranbururen surf tabla); 01852 (Asier Muniainen kamiseta); 01887 (Asier Muniainen kamiseta); 01927 (Ampo taldearen jertsea); 02035 (Ampo taldearen jertsea); 02147 (Ampo taldearen jertsea); 02433 (Claudio Chiapucciren kaskoa); 02472 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 02527 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 02628 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 02822 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 02828 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 02995 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 03092 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 03240 (Caja Rural taldearen bisera eta kamiseta); 03685 (Caja Rural taldearen botelin eta kamiseta); 03790 (Caja Rural taldearen botelin eta kamiseta); 04012 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04320 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04423 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04619 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04686 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04695 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04880 (Caja Rural taldearen kamiseta); 04961 (Erkaliz Elkorribarren maillota); 04965 (Francisco Gutierrezen Cafe Ba-

que maillota); 04981 (Markel Irizarren maillota); 05046 (Mariano Lejarretaren maillota); 05253 (Treck taldearen bisera eta hornidura poltsa); 05321 (Treck taldearen bisera eta hornidura poltsa); 05617 (Treck taldearen bisera eta hornidura poltsa); 05862 (Mikel Aristiren bisera eta hornidura poltsa); 05971 (Alejandro Valverderen maillota); 06268 (Haimar Zubeldiaren maillota); 06388 (Aitor Hernandezen maillota); 06418 (Gurutze Fradesen maillota, bisera eta kirol betaurrekoak); 06537 (Julian Sainzen kaskoa eta maillota); 06924 (Ainhoa Muruaren kaskoa eta maillota); 07544 (Ibai Linacisororen eski txalekoa); 07662 (Aitor Zabaletaren gidatzeko eskularrak); 07775 (Oinatz Bengotxearen kamiseta); 07810 (Markel Uriarteren kamiseta); 08236 (Ander Zabalaren maillota); 08378 (Imanol Garmendiaren kamiseta); 08407 (Jon Carazoren kamiseta); 08468 (Orio arraut taldearen sinatutako kamiseta); 08560 (Hondarribi arraut taldearen bisera eta sudadera); 08708 (Iñigo Uribarrenen kamiseta); 08772 (Malen Ruiz de Azuaren topa eta sudadera); 08792 (Kike Sebastianen kamiseta eta argazkia); 09016 (Maider Undaren maillota); 09263 (Narrea Agirrerren kamiseta); 09563 (Pou anaien kamiseta eta bisera); 09713 (Pou anaien kamiseta eta bisera); 09918 (Matxalen Ziarsoloren kamiseta); 10208 (Aritz Bordaren kamiseta); 10305 (Dani Estradaren kamiseta); 10464 (Itziar Zabalaren kamiseta); 10595 (Aritz Adurizen kamiseta); 10627 (Beñaten Athletic-eko kamiseta); 10697 (Oscar de Marcosen kamiseta); 10712 (Carlos Gurpegiren kamiseta); 10725 (Ander Iturrasperen kamiseta); 10733 (Markel Susaetaren kamiseta); 11133 (Xabi Alonsoren txandala); 11228 (Eibar taldeko jokalariek sinatutako kamiseta); 11680 (Eibar taldearen kamiseta); 11900 (Iosu Etxanizen kamiseta); 11942 (Ion Ansotegiren kamiseta); 11997 (Iñigo Martinezen kamiseta); 12257 (Markel Bergararen kamiseta); 12540 (Mikel Gonzalezen kamiseta); 12589 (Xabi Prietoren kamiseta); 12655 (Joseba Zalduaren kamiseta); 12806 (Mikel Aranbururen kamiseta); 13115 (Real Union taldearen kamiseta); eta 13183 (Iñaki Olaortuaren kamiseta).

Errefuxiatuen Aldeko Taldeak

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LEPO.- Bizkar, sorbalda. Gaztelerazko 'cuello' SAMA esaten da. "Junguria lepora jaso eta janzan trunkil-trunkil".

(iñoren) **LEPOTIK.-** Besteen kontura. Gaztelerazko 'a cuenta gorra'.

LEPUA BEROTU.- Norbait jipoitu, jo. "Bere biziko onduen lepua berotu zetsen".

astean esanak

"Beti ibili behar dugu jendeari eskatzen zator euskarara, euskarak behar zaitu? Jendeari esan behar zaio eurek behar dutela euskara, ez alderantziz. Imajinatu auto etxe bat esaten: erosi neure autoak, bestela porrot egingo dut-eta! Pentsaezina da inork halako publizitatea egitea. Guk egiten jarraitzen dugu. Zein balioaren gainean eratu nahi da euskararen marka? Non dago plan estrategikoa? Zeri erantzuten dio txantxangorriak? Ez dakit nori zuzenduta dagoen ere. Hortaz, ezin esan ona edo txarra den"

(JOSERRA GARTZIA, PUBLIZITATEAN ADITUA)

"Pilotari batzuk ondo irabazten dute eta beste batzuk ez hain ondo, baina inork ez du nahi lagatzerik. Badira ikasketekin partekatzen dituztenak, Elkoro bera tailerlean zebilen... Orduategiak ere ez dira finkoak, foballean moduan, eta aukera izaten da egokitzeko. Aspen 35 lagunene soldadak eta Seguritate Soziala ordaindu dezakegu, ez askoz gehiago. Telebista-, irudi- eta publizitate eskubideetatik aurrekontuaren %40 ateratzen dugu eta sarreretik eta jaialdietatik %50. Astelena ez dugu berrituko 'ogi eta meloiko' partidurik ekarriko, frontoira 35 lagun joan daitezten. Esnatu gara dagoeneko"

(FERNANDO VIDARTE, ASPEKO ENPRESARIA)

"Bakarrik egotearen beldurrak pisu handia du harreman toxikoei uko ez egiteko. Hartzen ditugun erabakiek bi helburu izan ohi dituzte: ez sufritzea eta plazera izatea. Logika horren arabera, egoera nahiko zitala da: harreman batean sufritzen banago, baina horrekin amaituz gero gehiago sufririko dudala pentsatzen badut, ez dut ezer aldatuko. Autoestimutxikiarekin oso lotuta egon ohi da jokabide hori. Harreman osasuntsuena da erraz gertatzen den hura. Arazoak gertatu, gertatu behar dira. Hori ezean, zerbait arraroa dago. Baina, borrokatu behar baduzu, harremana ez doa ondo. Maitasuna ez da sufrimendua"

(SILVIA CONGOST, PSIKOLOGOA)



LEIRE NARBAIZA

Eibarko kaosa

– Orduan, hurrengo bazkarixa Eibarren egingo dogu, ezta? – Eibarren? Bai? Kaos horretan? Ez dakit zelan bizi zeinken bertan, juaten naizen bakotxian, agobixau egitten naiz.

Oso denpora gitxian entzun dittut holako komentarioak kanpoko lagun batzuen ahotan. Halakuetan beti esan izan detset gure herrixa trafikua eta zaratia baiño gehixago dala. Baiña euren esperientziari ezin kontrarik egin!

Egixa esatera, eureri entzunda neuk be sentidu izan dot ittomena. Eibar ez da leku gozua bizitzeko, maitte dogu geuria dalako eta estimatzen dogun jentia bizi dalako bertan, baiña latza da. Begiratioxue herrixari kanpoko lagun hórren begixekin, eta konturatuko zarie zergaittik diñuen hori: Trafiko eta automobil larregi dabilrelako, zaratia itzela dalako, porlana eta galipota jaun eta jabe diralako, herrixan bertan berdegune ganorazkorik ez dakagulako, urbanismua kaotikua dalako,....Estuasuna sortzen dau, ittomena.

Jentiaren jua-eriorri zoruak, espaloí estuak, obren zarata amaibakuak, boziñak,... Zuetako askok bizittasuna esango detsa horri guztiari, baina ezin destazue ukatu estresantia ez danik. Gure osasun mentala kaltetu egitten dabela, berba baten esanda. Konponbide errezik ez badaka be, udalan partetik ez dot ikusten herrixa gozotzeko interesik. Aspaldixan hamentxe esan letxe, parke barrixetan dana da asfalto eta porlana, arbola eta landara gitxi. Obrak be, bata bestiaren ostian, ezer ez hobetzeko, oin 3 hille zabaldutako kalia atzera be zabaltzeko. Trafiko mortala, automobilak edonun. Pake pixka bat bihar dogu, baiña herrixan bertan, iñora ihes egin barik!

Iniestaren kamisetaren irabazliak AFESD alkartekueri emon detse barriro zozketatzeko


Oin dala egun batzuk AFESD, diagnostikorik ez daken gaixotasunak kaltetutakuen alkartiak zozketatutako kamisetia, Andres Iniestak siñatutako Bartzelona taldiarena, Buenos Aires tabernako Manu Emmanuel Ruiz Torres-ek irabazi dau. Halanda be, saridunak eskuzabaltasun haundixarekin jokatu dau eta kamisetia atzera be AFESD alkartiari emotia erabagi dau, holan beste zozketa bat antolatzeke aukeria izan deiken. Alkarteko ordezarriak bere esker ona azaldu nahi detse rifak erosi zittuen guztieri, baitta horren keiñu politta izan daben saridunari be, eta laster beste zozketa bat egingo dabela aurreratu dabe.



40. ediziñua beteko dabe Eibarko Antzerki Jardunaldixak aurten: martxuaren 3an hasiko dan programan 20 bat konpaiñiak hartuko dabe parte, 5 euskerazko lanekin.

San Blas lehiaketia gaur egingo da Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteak eta ...eta kitto!-k alkarlanian antolatuta aurreko asteko eguen eta zapatuan egin ziran ikastaro arrakastatsuen ondoren, gaurko San Blas lehiaketia preparau dabe. Parte hartzeko nahikua da etxian egindako opillak Topalekura eruatia, 17:00etatik 19:00etara. Epaimahaixak danak probatzen amaittu eta jarraixan, 20:00etan emongo dau ezagutzera bere erabagixa. Irabazliak Aza ta Porrua alkarteko produktuekin osatutako otar edarra jasoko dau.



Ainhoa Luz

ONA eta IK4-Teknikerren arteko hitzarmena

ONA Electroerosion enpresa bizkaitarrak IK4-Tekniker zentro teknologikuarekin alkarlanian jarduteko hitzarmena siñatu dau. Bixen arteko kolaboraziñua mekatronika eta prezisiñozko ingeniari-tza arluetakua izango da. Alkarlana ahalbidedutuko daben hitzarmena aste honetan siñatu dabe Javier Gonzalez ONA-ko zuzendari nagusixak eta Alejandro Bengoa IK4-



Teknikerreko zuzendari nagusixak eta, holan, azken urtiotan talde bixak euki daben lotura teknologikua moduren batian formaldu egin dabe. Hitzarmenak jasotzen dabenez, IK4-Teknikerrek Durangoko enpresari I+D+I arloko plan estrategikua definitzen lagunduko detsa. Horrekin batera, zentro teknologikurekin kolaboratzen daben beste erakundiak bezala, hainbat eskubide eta abantaila be eukiko dittue.

Korrika-ren erropia AEK-n dago salgai

Nahi dabenandako 20. Korrika-ren erropia salgai dake Eibarko AEK Euskaltegixan (Sostoa, 1). Martxuren 30ian hasi eta apirilaren 9an amaittuko dan 20. Korrikak Otxandio eta Iruñea batuko dittu eta, bidian, Euskal Herri osua ziherkatuko, Batzuk goiburuari jarraituta. Apirilaren 7xan (barixakua) 22:43 aldera ailegauko da Ermutik Eibarrera eta hamendik Bergarara joko dau.



autuan

BIZIKLETA UDALIAN

Udaleko bihargiñak erabiltzeko bizikleta elektrikua erosi dau udalak. Asmua, biharra dala eta batetik bestera jua bihar diranian bihargiñak bizikletia erabiltzia da. Udaletxiaren beheko solairuan aparkauta dago eta zelan erabili arautzen daben protokolua be sortu dabe.

GURASOAK MARTXAN

LHko umien gurasueri formaziñua eskintzeko asmoz, "Competencias emocionales" izenburuko hitzaldixak eskinduko dittue otsailaren 7, 15 eta 22xan (18:00-20:00) Portalean. Hizlarixia Baikarako Garbiñe Arrizabalaga izango da eta interesa dakenak Gizartekintzan edo ikastetxietan, Guraso Alkartietan emon biharko dabe izena.

TABERNETAKO ORDUTEGIXAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, urtarrillaren 13an egindako billeran, herriko taberneri urteko hainbat egunetan zabalik egoteko bi ordu gehixago emotia erabagi eban. Egun horrek jaixeri lotutakuak dira eta udalaren webgunian begiratu leikez.

Kenay 688 896 291
 www.kenay.biz
 San Juan, 11 - bis

IREKIERA ESKAINTZA 2X1
 Otsailaren 10era arte

Aurpegikoak
 Gorputz Tratamenduak
 SPA urbanoa
 Masajeak

Kosmetika biologika eta arduratsuan espezializatutako zentroa
 Rosario Gomez Rodriguez

Izadi
 LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
 CADENA SER
 104,0 FM

Funeraria·Ehortzetxe Mugica

EIBAR
 Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR
 Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
 24 orduko zerbitzu iraunkorra
 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



Egoaziaren kooperaziño-proiektuak bertatik bertara ezagutzen

Urtarrilaren 20tik 30era bittartian Perutik etorritako Wilmer eta Julio Bermejo gurian izan dira, urtietan eurekin alkarlanian diharduan Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundekueri bisita egiten. CIPCA-ren Nekazarixen Sustapen eta Ikerkuntza Zentroko bi kidiak egindako bidaia aprobetxauta, hamen emon dituen egunetan hainbat ekitalditan hartu dabe parte. Talde bixak esku artian dituen kooperaziñorako proiektu guztiak Eibarko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-la-

guntza jaso dabela eta, oiñ arte egin dabenaren barri emon nahi izan dabe eta, asmo horrekin, aurreko astian hitzaldi irekixa emon eben udaletxeko pleno artuan, "Udalak emondako diruari eta CIPCA-ren alkarlanari esker Peru egin diran aurrerapenen barri gardentasun osoz ebartarreri emoteko".

Azaldutakuaren arabera, "azken 14 urtietan garapenerako proiektu honen bittartez, Piurako (Peru) populaziñuaren bizi kalidadia hobetzeko asmuarekin alkarrekin jardun dogu biharrian. Eibarko Udalak,

Egoaziaren bittartez, 1.500.000 euro baiñõ gehixago emon dittu honezkerõ eta, horregaittik, egindako biharra ezagutzera emotia inportantia dala pentsatzen dogu".

Bide batez, bisita aprobetxauta, Eibar kirol alkartiaren eta Piurako Eibar Kirol Eskoliaren artian alkarlanian jarduteko lehen urratsak emon dittue. 2005. urtiaz gerotik Wilmerrek zuzentzen daben eskolia Santa Catalina de Mossa herrixan dago eta baliabide gitxi daken 8 eta 12 urte bittarteko umieri aisialdi osasungarrixaren dako tartia eskintzen detse.

2007ko Lurraldebus txartelak eguneratzen

Lurraldebus txartela erabiltzen dabeneri aditzera emon detse txartela 2007. urtekua izanez gero eguneratu biharra daguala. Eguneraketia oso erraz egin leike: kiosko edo liburutenda batetik pasau eta karga barrixa egiten dan momentuan txartela eguneratuta egongo da.

Mugi txartela prensa-saltokixetan eta hainbat bulego publikotan eskatu leike eta sistemai txartelak kargatzeko 600 bat gune dittu Gipuzkoan. Erabiltzaillai bai mendutako edozein tokittan izango dabe txartela kargatzeko aukeria, baita Mugiren webgunian be (eremu pribauan, alde zurretik erregistrauta). 5 eta 300 euro bi-

ttarteko kargak egin leikez, baiña internet bidezko kargak, gehixen jota, 100 eurokuak izango dira. Eibarren toki honetara jua leike: Goxoki Elena (kargatziak bakarrik), Untzaga kioskoa (kargatziak bakarrik), Urkiko kioskoa (kargatziak eta eskaeriak), Txutxufletas (kargatziak bakarrik), Juaristi estankua (kargatziak bakarrik), Gozoki Corbi (kargatziak bakarrik), Nahaste (kargatziak eta eskaeriak), Eneida janari-denda (kargatziak eta eskaeriak), Laes (kargatziak eta eskaeriak), Eibar estankua

Zure Lurraldebus txartela 2007koa da

eta oraindik ez duzu eguneratu?



INFORMA ZAITEZ

(kargatziak eta eskaeriak), Correos (kargatziak bakarrik), Eibarko udala (kargatziak eta eskaeriak) eta Kutxabank-en (kargatziak bakarrik).

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Martxuaren 8rako kartel-lehiaketa

Andretxeak, Emakumien Mahaiaren, Arrate Kultur Elkartearen eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntasunarekin, kartel-lehiaketa antolatu dau martxuaren 8xaren harira. Aukeratutako gaixa "Emakumea eta Artea" da eta kartel irabazlia Martxuaren 8ko kanpaina eta programaren irudixa izango da. Lanak otsaillaren 16ra arte jasoko dittue, Pegoran. Lehiaketara aurkezten diran karteekin erakusketia antolatzeko asmua dake, martxuaren 8tik 26ra bittartian Portaleko erakusketa aretuan. Irabazliari sarixa emoteko ekitaldixa martxuaren 8xan egingo dabe, erakusketan bertan, 13:00ian. Irabazliak 400 euro erosketa-txekia jasoko dau, Eibarko dendetan gastatzeko. Nahi dabenak Andretxearen webgunian topauko dau lehiaketaren inguruko informaziño guztia.



Kanbixuak eukiko dittu "Coliseoaren Laguna" txartelak

Aste honetan ika-mikak izan dira urte hasieran indarrian sartu zan "Coliseoaren Laguna" txartelarekin. Jeltzaliak idatziz aditzera emon dabenez, "EAJ-k azalaratu egin dau Eibarko Udalak arauen kontrako deskontuak aplikatu dittuala Coliseoaren Laguna txartelian. Udalak txartelaren tarifak hedabidietan iragarri zittuan, horrerri buruzko ordenantza oindiok onartu barik eguala". Salatu dabenez, "hedabidietan argazkixa eteratzia erakunde publiko baten kudeaketiak bihar daben zorroztasuna baiño inportantiagua izan dala". Gauzak holan, udalak hankasartzia onartu dau eta astelehenian bertan aditzera emon ebanez, "herritar gehixagori mesede egitteko asmuarekin, udala txartelaren tarifa barrixak aplikatzen hasi zan, Udalbatzaren onespina izan barik. Azkenian, aste honetako plenuan, urtarrillaren 30ian egindako bilkuran onartu dittu". Gauzak holan, udala kalte-tutakuekin banan-banan kontaktuan ipiñiko dala azaldu dabe, "gertatutakua azaltzeko eta konponbidiak adierazteko, eta, jakiña, aldaketak dirala eta herritarreri barkamena eskatzeko". Izan be, udalak txartelaren tarifetan zuzenketa batzuk egin dittu. Edozelan be, talde abertzaliak argi laga dau holakuen aurrian ez dabela beste aldera begiratuko, "interbentoriak ezarritako gidalerruak goittik behera betetzia" exijiduko dabela gaiñeratuta.

Mendaroko txokolate fabrikara bisita programatu dabe hillaren 11rako

...eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian programaren barruan, Mendaroko Txokolate fabrikia bertatik bertara ezagutzeko urteeria antolatu dau otsaillaren 11rako (zapatua). Juan nahi dabenak otsaillaren 9ra arte eukiko dau izena emoteko aukeria, ...eta kitto!-ra telefonoz deittuta (943200918) edo el-



karteak@etakitto.eus helbidera idatzitta. Asko jota 20 lagunendako tokixa egongo da. Urteeria goizez egingo da eta duan eskinduko dabe. Mendaroraiño trenez juango dira izena emoten dabenak eta ordutegixa izena emoten dabenian ziheztuko detse antolatzailliak.

Gehienez 20 lagunendako tokixa egongo da bisitan.

Eibar-Sahara Elkartea

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Eibar-Sahara elkartea Tindufeko kanpamenduetan bizi diren sahararrei laguntza emateko jaio zen. 40 urte daramatzate sahararrek Aljeriako Tinduf eremuko errefuxiatuen kanpamenduetan muturreko egoeran bizitzen. 150.000 pertsona bizi dira bertan. Nazio Batuen Erakundearen laguntzak murrizten joan dira eta, horregatik, bizirauteko ezinbestekoa dute Europar lanean diharduten elkarte desberdinek egiten duten lana.

Ekintza nagusiak

- "PIZTU ITXAROPENA" kanpaina: urte hasieran elikagaiak eta produktu higienikoak jasotzen dira Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deban. Horretarako herriko supermerkatuen eta ikastetxeen laguntza izaten dute.
- "OPORRAK PAKEAN" kanpaina: Uztailean eta abuztuan, basamortuan demaseko beroa egiten duenean, Saharatik etorritako umeek hemengo familiek in igarotzen dituzte udako oporrak.
- Euskal Herriko beste elkarte batzuekin batera, hainbat ekimen egiten dira kanpamenduetako pertsona DESGAITUen eskolei laguntza emateko.

Ekintza hauek finantziatzeko urtean hiru aldiz bigarren eskuko liburuak salgai jartzen ditu Eibar-Sahara elkarteak.

helbidea: San Kristobal, 8 - 2. esk.
telefonoa: 943 760022 // 665704137
e-maila: sanil@sanil.es
harremanetarako: Edurne Uzkudun
 (659 59 16 07) eta
 Marian Ircio (665704137)



Tindufeko kanpakentuetan ezinbestekoa dute kanpoko laguntza.

Eibarko Artisten Elkartea

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Arte-jarduerak sustatzea helburutzat duen elkarte hau 1966. urtean sortu zuten Jose Kareaga, Paulino Larrañaga, Dioni Murua eta Alejandro Marfulek. Handik gutxira beste batzuk batu zitzaizkien eta Eibarko eta beste herri batzuetako artista ospetsuen erakusketak antolatzen hasi ziren. Elkartearen erakusketetan arte-disziplina askotariko lanak aurkezten dira, teknika eta estilo desberdinetan: pintura, eskultura, marrazkia, grabatua, taila, zeramika, argazkia...

50 urtetan etengabe jardun du elkarteak arte-jarduerak bultzatzen. 170 bazkide ditu; haien artean denetik dago. Batzuk jarduera artistikoren batean jarduten dute, beste batzuk noizean behin euren lanen batekin parte hartzen dute, eta beste hainbatek, besterik gabe, artearekin harremanetan egotea gustuko dute.

Ekintza nagusiak

- Urteroko talde-erakusketa.
- Txangoak: museoak, gune historikoak, paisai ederrak, katedralak... bisitatzen dituzte, elkartearen giro artistikoa sendotzeko.
- Aire libreko pintura-lehiaketa San Andres jaietan.
- Erakusketak Eibartik kanpora: Ermua, Durango, Markina...

helbidea: Pagaegi, 3 behea
telefonoa: 695758544
e-maila: ja.larra@yahoo.es
harremanetarako: Jose Agustin Larrañaga



Iaz Irun eta Hendaia egindako txangoa.

Debabarreneko Kaleratzerik Ez Stop Desahucios elkarteak antolatuta, datorren asteko eguenean, **hilaren 9an**, Zoru klausularen inguruko hitzaldia eskainiko dute Maite Ortiz eta Jose Mari Erauskin abokatuak. Hitzaldia arratsaldeko **19:00etan** hasiko da Portalean eta, egun hauetan pil-pilean dagoen gaia tratatzeaz gain, hau da, klausulen aurrean zelan jokatu aholkatzeaz gain, Stop Desahucios-eko abokatu adituek beste hainbat gai ere jorratuko dituzte, "tartean hipotekak, komisioak, abal-emaileak, berandutza-kontuak...". Bestalde, Debabarreneko Kaleratzeak Stop elkarteak **asteroko bilera irekiak** jarraitzen ditu egiten Portalean, eguenean, arratsaldeko 19:00etan hasita.

JOSE MARI ERAUSKIN (abokatu):



"Zoru klausulen inguruko azken epaiak zurea dena berreskuratzeko aukera eskaintzen dizu"

- Aste honetan bertan zoru klausularen inguruan Kongresuan onartutako neurriarekin zer irabazi dute herritarrek (PP eta Ciudadanos-en aldeko botoekin, PSOEren abstentzioarekin eta Podemos-en aurka-koekin atera zen aurrera)?

Itxurak besterik ez dira horiek: jendearen alde egiten duela saldu eta benetan Bankuen laguntzen diete halako neurriekin. Banketxeekin negoziatzeko aukera ematen dutela diote, baina zer da negoziatu beharrekoa? Bankuek 10 segundotan dakite zenbat diru dagokien itzultzea. Hori jakinda, zertarako hitz gehiago? Hor ez dago beste misteriorik.

Aurretik ere, Espainiako Auzitegi Gorenak zuzenbide komunitarioaren aurka egin zuen eta fiskalak ere bide beretik jo zuen, jakinda bankuek hartutako neurriek zuzenbidearen aurka zihoazela eta horrek herritarrik kaltetzen zituela. Hor argi dago zein den gobernuaren izpirtua arlo horretan.

- Urte asko daramazue batzuek matraka ematen. Poztekoa da, behintzat, zeozer lortu daitekeela ikustea, be-

rri baikor hori Europatik etorri behar izan bada ere...

Lehen ere, abenduaren 21ean, Europak beste epai bat kaleratu zuen zoru klausulekin kobratutako gehiegizko diru hori bueltatu behar zela esanez. Eta estatuaren abokatuak itzultze hori ez gauzatzeko eskatu zuen. Hori Espainiako Erreinuaren abokatuak, pentsa! Halakoak jendearen izenean eta hiritarren babeserako!

Gauzak askoz errazago egin daitezke. Errege Dekretu bat onartu dezakete, hor 15 eguneko epea irekiz tarte horretan kobratu duten gehiegizko diru guztia bueltatzeko aginduz. Ba ez! Hemen erabaki dute prozedimentu ezin zailagoa zabaltea, banketxeekin negoziatzeko, bankuek behar beste trikimailu erabili dezaketenean bezeroak kopuru horiek zuzenak diren konprobatzea ezinezko bihurtzeraino. Eta lau hilabete-tan akordio batera ez badira iristen, orduan epaitegietara jotzeko... Ederra aukera!

- Bankiak eta BMN-k, baina, dirua berehala bueltatzeko erabakia hartu dute. Zergatik jokatu dute horiek desberdin?

Bankiak 800 milioi euro iraba-

zi ditu azken ikasturtean, aurrez irabazitakoarekin konparatuz %22,7 gutxiago. Kalkuluak egingo zituzten eta pentsatuko dute, euren egoera ikusita, bankuari mesedegarriago zaiola neurri hau hartzea.

- Eta jendeari, heldu garen puntura helduta, zer bide hartzea proposatzen diozu?

Begira: Nafarroako Caja Ruralekin gertatutako kasua. Bezero bati kutxa horrek 4.500 euro itzultzea proposatu dio, 11.000 euro bueltatu behar zionean. Bezeroak onartu egin du proposamena, datorren astean kobratuko duelako eta, halakorik ezperu ez zuenez, zerutik eroritako oparizat hartu duela. Bakoitzaren erabakia da.

Hartu daitezkeen posturak bi dira: edo epaitegietara jotzen duzu zor dizuten guztia eskatuz, interesekin, eta horrek guztia kobratzea ziurtatzen dizu, geroago izango bada ere; edo beste bidetik zoaz, bankura jo eta, euren adostu ondoren, seguruenik dagokizuna ez duzu kobratuko, baina azkarrago izango duzu diru bat poltsikoan.

- Bankuekin negoziatzerakoan zeintzuk dira, ba, arriskuak?

Jakina, batzuk edozerekin

konformatuko dira. Beste batzuei, dagokiena osorik ez itzultzeko, asmatuko dute hori aseguru batzuegatik aldatzeko aukera edo jubilazio plan batzuegatik. Azken batean, horrekin jokatzen delako beti: guztiei guztia bueltatu beharrean, azkenean batzuei bakarrik zeozer bueltatuko zaie. Ezin dugu ahaztu, beste behin, Gobernuaren jarrera: azkar esan du interesatuek kobratzen dutena gero Haziendari deklaratu beharko diotela. Oso ondo, legeak hala dio eta. Baina aldi berean banketxeekin adosten dituztenei prest dago betebeharrorretatik libre lagatzeko, hau da, diru gutxiago biltzeko prest agertzen da. Ikusten denez, Bankuaren interesak lehenesten ditu Haziendako interesen aurrean.

- Arazoak arazo, hainbat ate jotzea merezi du, ezta? Ez bada eskatzen, inork ez du ezer oparitzen...

Azken bost urtetan, esaterako, panorama zelan aldatu den ikustekoa da. Ia beti izan da joera bat jende arrunta botere publikoengatik auzipeko edo demandatu modura tratatzeko. Gaur da eguna jendeak auzijartzaile postura hartu duena.

Nerea Arriola (biolinista)

«Egunero pare bat ordu entseatzen dut gutxienez»

Nerea Arriola Mendaroko biolin-jotzaillea da. 14 urte ditu eta Elgoibarren ikasten ari da DBHko 3.mailan. Biolina jotzen oso gaztetatik hasi zen eta hainbat sari irabazi ditu, Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketa, besteak beste. Rafaela Acella da bere biolin-irakaslea eta egunero orduak pasatzen ditu entseatzen. Biolinaz gain lagunekin geratzea eta musika entzutea dira bere zaletasunak.



– **Nola sartu zinen musika mundura?**

Musikarien familian jaio naiz, nire gurasoek biolina jotzen dute eta txikia nintzanean probatzeko eman zidaten. Momentu horretan bertan “engantxatu” nintzen eta 5 urte ingururekin hasi nintzen biolina jotzen, orain arte.

– **Zenbat denbora egiten duzu entrenatzen?**

Egunaren arabera izaten da... Eskolatik 5ak inguruan etortzen naiz etxera eta kontuan hartu behar dira azterketak ere! Baina normalean egunero, pare bat ordu gutxienez. Ikasketak eta biolina uzartzea ez da ezinezkoa, saiatuz gero noski egin daitekeela.

– **Euskadiko Ikasle Orkestran sartu zinen eta orain Madrilgo Orkestra Sinfonikora zoaz...**

Bai! Euskadiko Ikasle Orkestrara 10 urterekin sartu nintzen eta ikaragarria izan zen. Beti bakarrik jotzera ohituta nengoen eta bat-batean, bakarrik egotetik ehun pertsona eta instrumentu desberdinekin jotzera pasatu nintzen. Ez nintzen gehiegi kezkatu hala ere, partiturak ondo ikasita ez dago zertan beldurtu, ez zen zaila izan, guztiz kontrakoa, dibertigarria egin zitzaidan! Eta bai, orain Madrilgo Orkestra Sinfonikora noa.

– **Nola aukeratu zaituzte?**

Madrileko Orkestra Sinfonikoak “talentuak harrapatzeko” proiektu bat abiatu zuen iaz eta aurten berriz ere errepikatu dute. 17 urterainoko gazteek bideoak bidaltzen dituzte eta horren arabera egiten dute aukeraketa. Prozesu horretan, aukeratutako partiturak bidali dizkigute guk geure kabuz entseatzeko. Espainia guztiko 34 ikasle aukeratu gaituzte (bi euskaldunak eta biak biolin-jotzaileak). Kontzertua eman aurretik hiru bat egunetan egingo ditugu entseguak denok batera Teatro Real-en eta kontzertua Martxoaren 29an izango da Auditorio Nazionalan.

– **Eibarren ere emango duzu kontzertua...**

Otsailaren 17an Coliseoan. Bakarrik joko dut Esther Barandiaran pianistaren konpainiarekin. Mozart, Bach, Carmen Sarasate, Rondino eta beste hainbaten lanak izango dira entzungai, musikaz gozatzea nahi duen publiko guztiarentzat

– **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Biolinarekin jarraitzea gustatuko litzaidake, baina badakit oso zaila dela. Oraindik DBHn nago eta gradu ikasketak edota formazioak urrutik ikusten ditut baina intentzioa badut, gainera familia osoaren babesa daukat eta nahi dudaren bila joateko esaten didate.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte

Kopina moda

f kopinamoda

San Agustin, 3
943 204181



B. Sarasketa, 1 ac

943 12 82 31

Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO PREZIORIK ONENEKIN!**

KAFETEGIA

OKINDEGIA

SUTLONDO

LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera



Gaztetxeko jarduera aparra bezala igotzen doa

Hilabete eta erdi itxaron beharko da, baina Gaztetxeak erein du hazia. Tira, hazia baino, garagarra. Joan den zapatuan Garagardo Tailerra egin zuten Gaztetxean eta landutako garagardoaz gozatzeko itxarotea besterik ez da geratzen orain. Probatzeko gogoarekin daude gazteak, dastatzea egiteko asmoa daukate eta, jaio ez bada ere, garagardoak badu izena: Kataia.

Hogei bat gazte batu ziren joan den zapatuan Eibarko Gaztetxean egin zen Garagardo Tailerrean. "Espero baino jende gehiago", diote Eibarko Gazte Asanbladako kideek. Lodosatik garagardoa egiten zekiten hainbat gazte etorri ziren eibartarrak prozesuan gidatzera, eta hilabete eta erdi barru ikusiko da egindakoaren emaitza.

Gaztetxeko espazioak txukuntzeko bidean dihardute herriko gazteak eta, eszenatoki berria eraikitzeaz gain, garagardoa egiteko gela prestatzen ari dira, hartidura edo fermentazio gela alegia. Zapatuko tailerrerako, ordea, oraindik ez zegoen prest, "eta geure kasa, etxeko moduan egin genuen".

20 litro garagardo egin zituzten gazteek. Orain, "astebete hartitzen egon behar da, eta gero botilan sartuko dugu hilabete eta erdi". Garagardoaren tenperatura kontrolatzea da egileen ardura, "horrek azken emaitzan garrantzia handia duela, baina espero dugu ondo irtetea".

Oktoberfest motako garagardoa landu zuten, gorputz ertaineko garagardo horixka, eta sei ordu ibili



ziren lanean. "Printzipioz guk dastatzeko egin dugu eta baliteke Gaztetxean dastatzea ere egitea", baina ez dute aurreikusituen saltzeko moduan ekoiztea. "Gehien jota, Gaztetxean sortzen ditugun ekin-tzetan edan ahal izateko eskaintzea pentsatzen dugu". Dena dela, garagardoak badu izena jada. Nola Gaztetxea lehen Cadenas Irisi zegoen tokian dagoen, Kataia deitzea erabaki dute.



dugu, ping-pong lehiaketa, otsailaren 11an Naluk Ilargi Festa egingo du eta gazte batzuek bizikleta zirkuitua eraiki nahi dute Gaztetxe atzealdean, besteak beste".

Auzolanean egiten du lan Gazte Asanbladak, eta gero eta jende gehiagok parte hartzen duela diote. Gaztetxea ego-

kitzeko lanak egiten dihardute, baina eurek adierazi dutenez, "edifizioa gutretzat erraminta bat besterik ez da. Eibarren ez dago gazteentzat alternatibarik eta antolatu behar dugu".

Gaztetxera denetariko jendea joatea da Gazte Asanbladak nahi duena, "aniztasuna nahi dugu". Eurek diotenez, "Gaztetxea kolektibo, gazte, jubilatua eta edonorentzat dago zabalik". Asteazkenetan 19:00etan egiten dituzte bilerak eta, esan bezala, edozein joan daiteke bertara. Euren kontaktuan jarri nahi izanez gero, euren Facebookeko orria 'Eibarko Gazte Asanblada' da.

Edifizioa erraminta bezala

Eten baten ostean, "azken aldian jendea animatzen hasi da eta proiektu berriak gauzatzeko hasi gara Gaztetxean".

Esan bezala, eszenatoki berria eraiki dute, joan den astean Uni Fest jaia egin zen ("110 pertsona batu ziren bertan") eta hainbat ekintza dituzte martxan

Gazte Asanbladakoek. "Pintura eta grafiti tailerra egitea nahi dugu, Udaberrian Gaztetxe Eguna ospatuko



www.aldatze.org

aldatze

**VI. ALDATZE
DENOK GARA
otsailaren 4an
11.00etan**



Cinema Paradiso filmeko protagonistak bezala, Sizilia utzi eta Italiako hiri handi batera jauzi egin zuen Walter Tuzzeok bere pasioa garatu eta hortaz bizitzeko. Totok, pelikulakoak, zinea maite zuen; Walterrek, ordea, musika. Hala ere, Tuzzeoren bizitza profesionalak zerikusi handia izan du zinearekin eta bere bizitza pertsonalarekin idatzi daiteke filma batentzako gidoia. New Yorkeko Central Parken Tony Bennett ezagutu zuen eta baita Eibarrera etortzeko arrazoia: bere emaztea. Orain, Legarreko musika estudioaren arduraduna da, besteak beste.



WALTER TUZZEO:

“Teknikariak bere ardura dauka, baina lanaren %70 musikariak egiten du”

– Nongoa zara zehazki?

Caltanissettako, Sizilia erdialdeko hiri batekoa. Txikitatik musikaria izatea nahi izan dut, baina familiakoak ez zeuden ados. Injeneroa, banku langilea edo korreo banatzailea izatea nahi zuten, zerbait prestuagoa. Kasu egin izan banie, oraindik han jarraituko nuen, nire herrian. Bizitzak bere bidetik eramaten gaitu eta nik neurea hartu dut.

– Nola hasi zenuen bide hori?

Soinu ikasketak egin nituen Milanen, SAE Institutuan. Soinuaren inguruan zerbait ezagutzen nuen, alde tekniko, baina Milanen hasi nintzen benetan ikasten. Uste dut berandu hasi nintzela soinua ikasten, txikia zarenean hasi behar zarelako, erraztasun gehiago duzunean. Txikitik pianoa eta gitarra jotzen ikasi nuen, baina ez neukan jarraitpenik, eskolan txarto ibiltzen nintzenez gurasoek musikatik aldentzen nindutelako. Hegoak mozten zizkidaten guraso eta familiak. Siziliako gizartea oso itxia da.

– Alde handia Milanekin alderatuta?

Bai, oso handia. Milanera joan nintzenen hego berriak hasi zitzaizkidaladiot. Egin nahi nuena egiteko askatasuna hartu nuen eta zoragarria izan zen.

– Eta ikasketak amaitzean, zer?

Hainbat estudiotara Curriculumak bidaltzen hasi nintzen, baina ez ninduten kasu handirik egin. Norbaitek zutaz ondo hitz egin behar du enpresaren batean muturra sartzeko.

– Nork hitz egin zuen ondo zutaz?

SAEk berak. Enpresak eskolara deitu zuen eta eurek nire izena eman zien. Ni Sizilian negoen orduan, zain, baina deitu eta berehala bueltatu nintzen Milanera.

– Zertan hasi zinen?

Pelikulen bikoizketak egiten, nahasketak, eta abar. Nire ‘maestroa’ ezagutu nuen han eta enpresa batera joan nahi nuen galdetu zidanean, berarekin joan nintzen.

– Zer egitera?

Lokuzioak: irratietarako, liburuentzako, bikoizketak, eta abar. Azkenean dokumentalak, pelikulak, zinerako Dolby Surround nahasketak... egiten amaitu nuen. Itzela izan zen. Sei urte eman nituen bertan eta, gero, autonomo bezala hastea nahi izan nuen.

– Zergatik hartu zenuen erabaki hori?

Sei urtean toki berean egon eta gero, errutinak nekatu egiten zaitu. Aurretik jendea ezagutu nuen, kontaktuak egin eta ahoz ahokoak bere lana egin zezakeela pentsatu nuen. Hainbat eskaintza jaso nituen eta nire kabuz ekitea nahi izan nuen. Beldurra neukan, soldata finkoari eta lasaitasunari uko egiten niolako, baina gaztea nintzen eta mailaz igo nahi nuen. Dirua beharrezkoa dugu bizitzeko, baina nik egiten nuenarekin ondo sentitu nahi nuen.

– Nola joan zitzaizun bakarkako abentura hori?

Hainbat pelikulatan egin nuen lan, aktore garrantzitsuekin ibili nintzen...

MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

7. URTEURRENA (2010-I-30)

“Zazpi urte badira ere gure aldetik joan zinela, zure maitasunak eta irribarreak gure bidea argitzen jarraitzen du. Askok maite zaitugu”

ETXEKOEK



– Zeintzuk?

Pare bat proiektu handitan aritu nintzen: Terry Gilliamen 'Tideland' filmeko Italiako bertsioaren nahasketak egin nituen eta, gero, Maurizio Irletak ordu eta erdiko bideo batetan dialogoak, musika eta soinu guztia sartu behar izan nuen nik bakarrik. Ez dira gauza asko, baina profesionalki asko hazteko balio izan didate.

– Sasoi hartan, soinuarekin lan egiteaz gain, musika munduan ere bazenbiltzan?

Gutxi. Country-pop musika egiten zuen talde batean hasi nintzen baxu-jole moduan, lanean negoen estudioan diskoa egin nahi zuen bertako neska batekin. Polito geratu zen diskoa.

– Ezer gehiago?

Poliki-poliki taldea albo batera uzten hasi ginen eta Milanen ez dago jolasteko denborarik. Hobbya zen, gauzez entseatzeko ginen eta sakrifizio handia zen.

– Hain erritmo handian bizi da Milanen?

Milan ez da Eibar (barreak). Oso bizia da, bizitzak ez du etenik izan. Nik bederatzi orduko lanegunak egiten nituen, jarraian, ordu laurdeneko atsedendiekin hiru orduan behin. Gogorra zen.

– Zergatik utzi zenuen Milan?

Ez dut utzi, han etxea daukat oraindik. Milan Europa erdian dago eta ez dakizu inoiz zein aukera sortu ahal zaizun bertan. Ziur naiz Milan uzteko erabakia hartzen dudana momentuan han zerbait irtengo zaidala. Gainera, hemen dauden baliabide ekonomikoak ez dira oso onak eta irabazten duzun gutxiarekin bizi egin behar duzu. Beraz, ia ez daukat Milanen zer gertatzen den ikustera joateko aukerarik.

– Eibarrera etorri aurretik, hala ere, Estatu Batuetik pasatu zinen.


Lan asko egin, dirua aurreztu eta AE-Bra joateko erabakia hartu nuen. Lau hilabete egon nintzen, ingelera ikasten eta Broadwayko antzerki batean praktikak egiten. Beste mundu bat da hura. Hango Hizkuntza Eskolaren erruz nago Eibarren, han ezagutu nuelako nire emaztea dena.

– New Yorketik Legararrera zure emazteagatik orduan?

Eibarrera etorri nintzen lehen aldian, berak Legarreko lokaletan jotzen zuten hainbat lagunekin egin zuen topo eta aurkeztu egin zizkidan. Futbolaz galdetu zidaten, baina niri musika gustatzen zitzaidala esan nien, bajua jotzen nuela. Eurek Legarreko lokalez berba egin eta uda osoa musika jotzen pasa nuen.

– Eta orain Legarreko musika lokaletako estudioen lan ardura daukazu.

“Terry Gilliamen ‘Tideland’ filmeko Italiako bertsioaren nahasketak egin nituen”



“Legarreko estudioak soinu kalitate ona eskaintzen du”

Bai, estudioa Eibarko Gazteen Musika Elkartearena da eta ni arduratzen naiz bere funtzionamenduz. Estudioa birmoldatu nuen, txukundu, eta ahalik eta kalitate handiena eskaintzen saiatzen naiz. Elkarteari eskerrak emateko modua da. Hala ere, nik ez dut hilerro soldatarik jasotzen, norbaitek zerbait grabatzen duenean baizik. Estudioak soinu kalitate ona eskaintzen du, nahiz eta hobe izan zitekeen, baina horretarako inbertsioa egin beharko litzateke, horrek tari-

fak igotzea suposatuko luke eta, azkenean, buztanari haginaka egiten dion txakurra bezalako da egoera.

– Badago mugimendua estudioan?

Gutxi. Azken aldian, ahoz ahokoari esker hainbat lantxo irten dira, baina hori, lantxoak. Egoera honek ez du iraunkortasunik.

– Eta Eibartik kanpo?

Saiatzen ari naiz han eta hemen muturra sartzen, eta pare bat elkarrizketa egin ditut. Uste dut batzuk errezeloz begiratzen didatela, baina ez naute ezagutzen. Nik ez dut inor molestatu nahi; ondo funtzionatzen duen talde batean egon nahi dut, eta profesionaltasuna, ezagutza teknikoak eta gizabaliok eskaini. Izan ere, askotan zenbaki bat besterik ez gara, dena hotza da, eta ez zait gustatzen, pertsonak gara.

– Horrela da Milanen? Hotza?

Denetarik tokatu zait. Normalean, hasieran egoera hotza da, baina ezagutu ahala berotzen djoaten da. Lanbide honetan norberaren izaerak eragin handia dauka, oso garrantzitsua da. Musikariari konfiantza eman, bezeroa bide egokienetik gidatu burugogorra izan gabe, gauzak modu onean esan... musikariaren tokian jartzen saiatu behar zara eta bera gustura egon behar da. Teknikariak bere ardura dauka, baina lanaren %70a musikariak egiten du.

– Nola ikusten duzu Eibarko panorama musikala?

Ezagutza teknikoaren gabezia somatu dut. Hezkuntza eta kultura musikal handia dago, baina entzutearen hezkuntza falta da. Abestiek soinu ona izan dezakete, baina oreka mantendu behar dute. Bestetik, musikariei esango nieke estudioa prest etorri egin behar direla, bestela ordu asko eman behar dituztelako eta horrek asko garestitzen dielako diskoa.

– Baduzu musika proiektu propiorik?

Ez, eta pena ematen dit. Batzuetan abesti bat idazten dut eta, gero, pentsatzen dut ea zergatik idatzi dudana eta bota egiten dut. Inoiz ez dut pentsatu musikan bakarka zerbait egitea, kritikatu eta zuzentzen naiz ona bakarrik (barreak).

MAITANECASTILLOTAOLA
X. urteurrena

***Bizipozez beteta esnatzen den / Txoritxo kantarienari
 eskerrik beroena ematea / besterik ez zaigu geratzen;
 maitasunez, alaitasunez, itxaronpentsu / zuk irakatsi zenigun bezela.
 Zure irribarrerik goxoena gogoratzeak, / aurrera egiteko kemena
 emango digulako; / bide luze honetan hau hasiera besterik ez da eta.
 Estali arren ez baita / itzaltzen izarrak duen distira.***

“ZURE TROPA”



Herriko kalietan Santa Ageda batzen

Bixar Santa Ageda bezpera dala eta, hainbat taldek jardungo dabe herriko kalietan kantuan. Eguerdi aldian Urkizutik abiatuko dira ...eta kitto! Euskara Elkarteak deittuta batuko dan taldia eta Kaleetan Kantuz abesbatzaren Santa Ageda kalejira. Eta illuntzian, barriz, urtietako ohittuari eutsita Sostoa abesbatzak kalejiria egingo dau, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarixak lagunduta, 19:00etan hasitta. Eta ordu erdi geruago hasiko da Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren kalejira.



Santa Ageda kantari taldia, 1934an.

Geurian ondo errotutako ohittura zahar bi badagoz oindiok: atzoko egunian San Blas opillak bedeinkatzera eruategia da bat eta bestia, barriz, Santa Ageda bezperan kantuan ibiltzekua. Ego Ibarra batzordiak 1993an argittara emon eban "Antzinako Eibar" liburuan Juan San Martinek jasotakuaren arabera, Santa Agedari eskindutako kantuak Euskal Herrixan oso zabaldua dagoz. Bertan erabiltzen diran bertsuak herri kanta zaharretako



kopla erakuak dira eta horrelakuak Azkue-ren "Cancionero popular vasco" dalakuan be badagoz, Azkuek berak Baxenafarroko Amikuzen, Nafarroako Olaztin eta Altsasun, Gipuzkoako Getarixan eta Bizkaiko Gernikan jasotakuak.

Eibarren be antxiñatik dator Santa Ageda bezperan, otsaillaren 4an taldiak kalerikale kantuan ibiltzeko ohitturia, eta basarritarren artian oindiok lehenagotik ezagutzen da. Agiririk zaharrenak Agiñaga auzoko San Roman ermittari lotutakuak dira. Ermita barruan XVI. mendeko Santa Agedaren irudi ederra dago gordeta eta, baillartik kanpora be, Eibar, Barinaga eta Etxebarriko basarritarrak deboziño haundixa euki detse. Urtietan, haurdun daguazen andrak erreztatera eta kandelak ixotzera juaten jakozen. Oin dala urte batzuk San Romanen oindiok be erromerixia egitten zan Santa Ageda egunez.

San Martinek Ertzil zaharrari entzundakuen arabera, "antziña, bezpera illuntzian kantari talde bat abiatzen omen zan, bertsolari batekin, baserririk baserri. Bertsolarixak bakarrian bertso bat kantatzen omen eban etxe bakotxeko atarixan, eta kantari taldiak bertso bera errepikatu".

Bertsuetan, etxeukuak agurtzen zittuen, Santa Agedaren goresmenak kontatu eta diru zein janari laguntza eskatiaz gain. Batzen ebenarekin bixamonian bazkarixa egitten eben eta, zeozer sobrau ezkeru, pobrieri emoten zetsen. Eibarko zaharrak, ohittura honeri, "Santa Ageda batzen" deitzen zetsen.

Itxuria, San Martini Ertzilek berak kontau zetsanez, bere gazte sasoiaren ezagutu zittuan bertsuak nahiko eskasak ei ziran, "eta sarri itxurarik gabeko arloteak". Adibide modura, Eibarko kalietan entzundako hōnek emoten dabe liburuan: *Kura-parroko mondongo / ik ez dok asko emongo; / ik emondako limosniarekin / ez juagu asko edango.*

Edozelan be, kantatzen ziranak fundamento askorik ez zekela pentsautu, Batzokikuak Kepa Enbeita "Urretxindorriari" bertso barrixak jartzeko eskatu zetsen eta hōrretxek dira, hain zuzen be, gaur arte geure artian iraun dabenak.

Urretxindorrek idatzitako bertsuak

Kantatzen hasteko alkate jaunaren baimena bihar zala eta, lehen bertsuaren eskatzen da permisua: "Gabon etxeko nausi ta



FELIX GANDIAGA ARTETXE

2017ko urtarrilaren 29an hil zen

"Bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko"

ETXEKOEK

Familiaren izenean, **eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



txiki / zar eta gazte batera./ Alkate jaun
baimenaz gatz / zueri agur eitera / Le-
nauko zarren antzera / ba-gatz zeuen
etzera, / Santa Ageda-ren gorazpen ani-
tzak / euskeraz abestutera. Guztira bost
bertso idatzi zittuan Urretxindorrek: lehe-
lengo hori sarrerako agurra litzake, biga-
rrena eta laugarrena Eibarko herrixari es-
kindutakuak dira, erdixan Santa Agedari
buruzkua eta amaieran azken-agurra.

Eibar goraitatzeko lehen bertsoak ho-
lan diño: *Eibarren dagoz gauza ederrak, /
oso ederki egiñak: / Izkillu-olak, gizon aun-
diak, / mutil indartsu gordiñak, / andra eder
ta bikañak, / neskatxa polit apañak, / uda-
barriko lili ta lora / diran lakoxe berdiñak.*

Jarraixan, martiriari eskindutakua dator:
*Illarteraño Jaunkoiko-zale / garbi-garbia
izan zan; / orbandu gura ez ebalako, / bu-
larrak ebai eutsezan, / ziñopa eginda il zan;
/ orain dago zeruetan. / Bere antzeko gar-
bi-zaliak / gu ere izan gaitezan.*



Sostoa Abesbatzakuak kantuan iazko ediziñuan.

Ondoren atzera be Eibarri buruzko lau-
dorioak datoz: *Eibar euskaldun erri maitiau
/ ospetsua da benetan; / bertako seme ja-
tor zintzuak / daukaguz goien munduan. /
Pelotarien artian / Migel dogu gallurrian: /
Pozez beterik ikusten dogu / mutil au gu-
re errian. Eta azken-agurra egitteko ber-*

*tsua hauxe da: Zorioneko izango al da /
etxe au beti-betiko; / bizi garian arte guz-
tian / dogu goguan eukiko. / Maitagarria
dalako. / Belutu egin orduko, / agur! egi-
ñik amaitzen goiaz, / beste batera joateko.*

Gaztiak eta "kinttuak"

Ego Ibarra batzordiak berak jasotakua-
ren arabera, antxiña basarririk-basarri es-
kian juaten ziranak gaztiak edo "kinttuak"
izaten ziran, afariren bat egitteko dirua
batzen: *"Makillak lurrian kolpatuta, ko-
plen erritmua gordeta aritzen ziran kan-
tuan eta letrak, normalian, herriko kon-
tuak edo halako etxeko zeraren boronda-
dia edo beste haren zekentasuna izaten
eben hizpide. Eibarren dakagun koplak za-
harrenetako batek holan diño: Bedeinka-
tua izan dadilla / Etxe hontako jendia / Po-
bre ta umillak izan arren / Badake boron-
datia. / Lekamendi ta Bolingo / Erdi-erdi-
xan Katalan, / Etxe txikiak ei dira baiño /
Hamen badago zer eman; Etxe hontako
nagusi jaunak / Urre gorritz du bizarra, /
Urre gorritz du bizarra eta / Zidar labraduz
espalda. / Boltsan daraukaz diru bi / Ba-
tak bestia diruri. / Etxe hontako dama
gaztiak / Krabelintxua dirudi; Etxe honta-
ko etxeko andria / Leku oneko alaba, / Bi-
dian esaten etorri gera / Limosnagillia ze-
rala. / Hor goixan dago hagia / Lukainkaz
bete-betia, / Lukainkatxo bat emonagatik
/ Ez da hustuko hagia".*



Santa Ageda batzen ...eta kitto!-rekin


...eta kitto! Euskara Elkarteak be ohitura zaharrari eutsi nahi detsa eta bixarko "san-
ta eskea" antolatu dau: "Gure ohitura zaharrak berreskuratu eta indartzeko as-
muarekin, kalera urtengo gara Santa Agedari kantatzera zapatu eguardixan,
12:00xak aldera. Aurretik, baiña, ensaio txiki bat egingo dogu ...eta kitto!-n bertan,
11:00etan. Estaziño, Ibarkurutze eta Urkizu inguruan jardungo dogu kantuan eta,
ondoren, ...eta kitto!-n alkartuko gara atzera be, danak alkarrekin mokadutxo bat ja-
teko. Basarritar jantzitta (zapixa edo txapela jantzitta be izan leike) eta makillarekin
urtengo gara. Edarto ibilliko gara eta, horregaittik, eibartar guztiak gurekin bat egi-
ttera animau nahi dittugu".

JESUS DIAZ GARCIA

– 1. urteurrena: 2016-II-6 –

*"Izan zarena eta erakutsi diguzuna
ez da inoiz itzaltzen eta, inoiz
itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu"*

ZURE FAMILIA





osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Kosmetika

Kosmetika, gorputzaren edertasuna eta higieena hobetzeko erabiltzen diren produktuak dira, eta bide batez, azalaren osasuna hobetzen dutenak. Baina helburu horiek lortzea ez da erreza. Pertsona bakoitzak azal mota ezberdinekoa da, eta berarentzat kosmetika egokiena bilatzea komeni zaio. Orokorrean, azal motak, lehorrak, koipetsuak eta mistoak badira ere, beste hamaika faktore agertu daitezke: aknea, kuperosia, dermatitisa, ... pertsona bezain beste azal daudela esan daiteke. Hala ere, azala garbia eta ederra mantentzeko pausu orokor

batzuk gomenda ditzakegu. Lehenik eta behin, goizean eta gauean, azala produktu egoki batekin garbitzea, eta ondoren, "serum" bat eta krema hidratante egoki bat ematea. Beti ere, krema egunez ematen bada, eguzkirako babesa edukitzea komeni dela kontuan izanik. Izan ere, ezin dugu ahaztu azalaren zahartzearen eragin haundiena duen faktorea, eguzki izpiak direla. Arazo ezberdinak dituzten azalarentzat, egokien diren tratamenduak bilatu beharko dira, aknearentzako, kuperosiarentzako, dermatitisa, ekzemak... Eta argi eduki behar dugu,



edozein dela gure azala, beti komeni dela espezialista baten aholkua bilatzea. Gure azala da, munduan eta beste pertsonen aurrean, erakutsiko duguna, beraz, ahalik eta osasuntsuena eta ederrena edukitzea komeni zaigu. Zaindu.

50ekoen krisia? bikote harremanean

Beti hitz egin izan da 40koen krisiaren inguruan. Gauza da gaur egungo 40 urteak ez direla garai batekoak bezalakoak. Krisi ospetsu hori, izatekotan, 50 urtekoek jasaten dute gaur egun. Zer gertatzen da bizitzaren sasoi horretan? Alde batetik, aldaketa fisiologiko zein fisiko garrantzitsuak egin behar izaten diegula aurre -hor daude menopausia eta andropausia- eta bai emakumeek eta baita gizonezkoek ere gorputz eraldaketaren aurrean izaten gara.

Bestalde, seme-alabak badira tartean, beharbada nerabezaroa eta helduen bizitzaren hasieraren arteko adinetan izango dira (10etik 20 urtera arte). Zainketa papera alboratzen doan moduan, gazteak autonomia joango dira irabazten eta euren bidea hasiko dira topatzen. Hustutako kabiaren egoeraren aurrean gaude.

Bikote-harremanaren aurrean bagaude, horrek nerabezaroan izan dezake hasiera. Elkarrekin 20tik 30era urte arteko tartea egin di-

arantza
alvarez
SEXOLOGOA



tuzten bi pertsonen aurrean gaude. Euren bizitzako zati gehiena seguruenik bien arteko proiektua eraikitzeari eskaini diote (seme-alabak, pisua, autoa, lana...) dedikazio handia eskatzen zien etapan. Aipatutako proiektu horiek bideratuta egon daitezke 50 urteren bueltan... Eta orain zer? Bikotea aurrez-aurre aurkitzen da berriro, eta askotan euren artean partekatze gutxi duten bi ezezagun besterik ez dira. Bikote-krisi asko ematen da adin horretan. Orduan argituko da harremana zaindu den eta denborari egonkor eutsi dion, edo hartutako bideak aldendu diren eta familia egoerari eustearren zeuden lotuta faltzuki.

Gainera, etorkizunari begiratzen zaio. Aurretik beste 30 urte gertatzen direla kalkulatu da, 20 bat ederrak izan daitezkeenak... Zer egin denbora horrekin?

Bilatzen dugun etorkizuna, baina, gaurtik goaz eraikitzen. Elkarrekin 30 urte bizi ditugunean 50era heltzerakoan gure harremana sendoa izatea nahi badugu, berehala berreskuratu beharko ditugu indarrak. Ahaztu barik guraso, behargin, familiako, lagun... izateaz gain, gure bikotearen bikote ere bagarela.

Gomendioa: "Los puentes de Madison" filma

sex KONTUAK



Probetxuzko asteburua izan zuten herriko atletek

Atletismoko probekin zapatu eta domeka ezin beteagoan, Klub Deportiboko atletak ondo aprobetxatu zuten euren onena eman eta garaipenak eta markak lortzeko. Horrela, zapatu goizean Hernanin alebin eta infantil mailetakoko probetan marken bila jardun eta gero, arratsaldean kadete, jubenil eta junior mailetakoko Gipuzkoako txapelak izan ziren jokoan Donostiako belodromoan. Guztira 12 eibartar izan zituzten probetan, Julen Teran juniorrak urrea lortu zuen 800 metrotan, eta kadeteetan Carlitou Mendyk eta Aratz Morak urrea eta brontzea eskuratu zuten hurrenez hurren jauzi hirukoitzean; horrez gain, Mendyk zilarrez-

koa ere bereganatu zuen altueran. Domeka goizean Unben izan zuten hitzordua Deporrekoko atletak eta, antolatutako jabalina eta disko jaurtiketakoko probetan, Odei Jainagak Gipuzkoako marka absolutoa egin zuen (70,16 metro), Carlitou Mendyk aurtengo Espainiakoa kadeteetan (52,64 m) eta Ekain Egurrolak eta Jone de Castrok Espainiakoa txapelketetara joateko markak egin zituzten. Goiz horretan jokatuko zen Lasarteko nazioarteko krosa ere eta han izan ziren Deportiboko 10 atleta: Gorka Kareaga (9. infantiletan), Unax Amorrosta (7. alebinetan) eta Maddi Tejada (16. infantiletan) izan ziren ordezkari onenak.



Mendyk domina bi irabazi zituen.



Deportiboko seikotea Nafarroako eta Euskadiko eski txapelketan

Aurreko asteburuan Belaguan jokatutako iraupen eskiko txapelketan, Eibarko Klub Deportiboko sei ordezkari izan ziren parte hartzen eta eurentako hiruk (Naia Saezek, Xabier Uriguenek eta Iru-ne Chaconek) podiuma ere lortu zuten euren mailetan. Beste hirurak (Elene Gisasola eta Julen eta Ilaski Chacon) ere ikuskizun ederra eman zuten lehiatutako probetan.



Bihar hasiko da triatloi denboraldia

Asteburu honetan hasi eta irailaren azkeneko asteburura arte iraungo duen egutegia antolatu du Euskadiko Triatloi Federazioak denboraldi berriak, guztira berrogei probekin. Proba horiek duatloi, triatloi, akuatloi, duatloi kros, triatloi kros eta neguko triatloian, sei modalitate horietan jokatuko dira. Denboraldiak, hala ere, badu berritasunik: orain arteko Euskal Herriko zirkuitoa desagertzen da eta Euskadiko zirkuitoa izango da bakarrik; gainera, proba horietan bakarrik federatutako triatletak hartu ahal izango dute parte. Duatloi denboraldiak 11 proba izango ditu, sprint, motz, er-

di eta luze distantzietan, eta apirilean amaituko da. Zirkuituarekin batera Euskadiko txapelketak jokatuko dira, eurentako sprint distantziakoa Eibarren apirilaren 1ean, gure herriko probaren 26. edizioan; justu astebete lehenago, martxoaren 25ean, Ermukoa izango da jokoan. Apirilaren amaieran triatloi denboraldia hasiko da, guztira 23 probekin; horiez gain, Donostian Emakumeen Triatloia jokatuko da. Bestalde, akuatloi eta duatloi-kros denboraldiak bina proba izango dituzte, eta triatloi-krosak eta neguko triatloiak bana, azken modalitate horretakoa Isaban.

Bidebarrieta, 5 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es



LASER DEPILAZIOA

OTSAILEKO PROMOZIOA

Izterondoak + Besapeak: 50€

**GORPUTZ
TRATAMENDUAK**

PROGRAMA BERRIAK

Tratamendu drainatzaile
eta birmodelatzailearen

4 salorako bonoak

M a s a j e a k

Powered by **BODY**



Ipini zaitez sasoi onean ...

Hileroko bonoak

... astero bakarrik 20 minutu eginez

Pertsonalizatua

Herriko foball taldeek denboraldiaren erdia bete dute dagoeneko

Eibar FT, Urki eta Eibartarrak dira gure herriko ordezkariak foballean, guztiek ere talde nagusienetik aparte harrobia ere zaintzen dutenak. Lehen biek emakumezkoen taldeak ere badi-tuzte; Eibartarrak-ek, bestalde, arlo horretan aitzindaria izan arren, Eibar FT-k haren egitura hartu zuenetik gizonezkoen taldeak ditu bakarrik. Talde guzti horiek denboraldi honetan daramatzaten ibil-bidearen laburpena egingo dugu jarraian. Senior mailakoengandik hasita, **1. Mailako Eibar 10.** dago sailkapenean (20 taldetik), hor goian dagoen hirugarren denboraldian ere lehen itzuli bikaina eginda. **Emakumezkoen 2. Maila** Nazionalean jokatzen duen Eibar 5. da bere multzoko sailkapenean (14 taldetik), iaiztik aurrerapausu bikaina emanda. **Gizonezkoen 3. Mailan** jokatzen duen Vitoriak, iaiztik Eibarren filiala dena, bigarren dago sailkapenean (20 taldetik), Alaves liderrarekin berdinduta eta 2. B-ra igotzeko promozioa jokatzeke aukera du hurrengoei aldea ateratzen dielako. **Emakumezkoen Lurralde Mailan** jokatzen duen taldea 6. postuan dago (10 taldetik) eta ez du arazorik izango mailari eusteko. **Erregional mailara** pasatuta, Gorengoan Mailako Eibar Urko talde berria 4. dago sailkapenean (16 taldetik) eta goraka doa, azken jardunaldian liderraren zelaian berdintzeraino. 1. Erregionalean jokatzen duten Eibartarrak-ek eta Urki ligako bigarren faseari ekin diote: Eibartarrak-ek iguera fasean dihardu eta une honetan azkena da (10 taldetik) eta Urki, bestalde, Kopa fasea jokatzen du eta 2. da (7 taldetik).

Gazteagoen mailalara jaitsita, **jubeniletako** Ohorezko Maila Nazionaleko Eibar 9. da (16 taldetik) eta ez du arazo handirik izango mailari ondo eusteko. Jubeniletan ere, Lurraldeko Ohorezkoetan Eibar 2. da bere multzoan (16 taldetik) eta 1. Mailan jokatzen duten Urkiren talde biek iguera fasean dihardute, ondo sailkatuta gainera: Urki A 2. da bere multzoan eta Urki B 4. berean (multzo bakoitzean 10 talde daude). **Kadeteetara** pasatuta, Euskal Ligako Eibar 5. da (16 taldetik) eta denboraldi bikaina dihardu egiten. Kadeteetako Lurraldeko Ohorezkoetan, bestalde, Eibar 6. da eta Ur-



Kadeteen Ohorezko Mailako Eibar FTko neskek dena irabazi dute. Silbia

ki 11. (16 taldeko multzo berean) eta 1. Mailan Urki iguera fase-rako sailkatu da (9. da 10 taldetik) eta Eibartarrak Kopa dihardu jokatzen eta azkena da (7 taldetik). Aipatzekoa da, benetan, kadeteen Ohorezko Mailako Eibarko taldeko nesken ibilera: liderrak dira (14 taldetik) jokatutako 15 partidua irabazita. **Infantil mailari** dagokionez, Ohorezko mailako txapelidunen fasera pasatu den Eibar 6. da (8 taldetik) bere multzoan. Hiru talde daude, bestalde, 1. Mailan eta hor Urki txapelketa fasea dihardu jokatzen (5. da 10 taldetik), beste biak, Eibartarrak-eko ordezkariak, Kopan lehiatzen duten bitartean (euren multzoko azken bi postuetan daude). Infantil Txiki mailari dagokionez, Errendimenduzko txapelketan Eibar 2. da (6 taldetik) eta Parte-hartze Txapelketan Urki azkena da (6tik). Infantil maila horretako nesken arloan Urki bi ordezkari ditu: txapelketa faserako sailkatu den Urki A lehen faseko zazpi partidua irabazteaz gain, fase honetako beste seitan ere garaile izan zen azken jardunaldian Zumaia-ekin galdu arte (talde biak berdinduta daude lidergoan, 10 talde osatutako multzoan); Urki B, bestalde, Kopako lehian dabil eta 7. da (10 taldetik).



Avia Eibar Rugbyko taldeak fase erabakigarrian sartuko dira

Baloi obalatuaren kirolean, Avia Eibar Rugby Taldeak 18-0 irabazi zion El Salvador B taldeari azken jardunaldian eta, jarraian lortutako hirugarren garaipenari esker, hiru talde ditu orain atzetik Ohorezko B Mailako sailkapenean. Eibartarrak bederatzigarren dira, Oviedori aurrea hartuta. Emakumezkoen senior taldeak azken urteotan izan duen garapena erakutsi du denboraldiko lehen fasean eta orain bigarrenari ekin dio: jardunaldi bakarra jokatu dute oraindik eta otsailaren erdialdetik aurrera sartuko dira buru-belarri fase horretan. 18 urtetik beherakoenen eta 16 urtetik beherakoenen taldeek Euskadiko Ligan jokatzen dute eta maila bietan azken postuetatik ihes egiteko borrokan dihardute.

Katu-Kalekoek gaur hasiko dira umeekin ipuruan entrenatzen

Aurreko domekan ate zabalik jardunaldiekin amaitu eta gero, gaur hasiko dituzte saskibaloiko entrenamenduak Kiroldegian 2005etik 2008ra urteen artean jaiotako neska-mutulekin. Kirol hori gustuko duten guztiek aukera bikaina dute horretan sakontzen joateko eta saskibaloaren nondik-norakoak ikasteko. 2007an eta 2008an jaiotakoek 17:15ean hasiko dira eta 2005ean eta 2006an jaiotakoek ordu bete geroago. Katu-Kalekoek, gainera, denboraldi bikaina dihardute egiten eta oraindik ez dute porrotik jaso. Iñaki Sanchezen taldeak baja asko bazituen ere, lanak eman zizkion Mutrikuri irabazi zion 81-68 Ipuruan. Atsedendira eibartarrak sei puntuko aldearekin erretiratu ziren eta Garrido eta Will izan ziren Katu-Kale-ren saskiratzaile onenak, 23 eta 22 punturekin hurrenez hurren.



Eskubaloian bajak eragindako egoera berrira doaz egokitzen

Eskubaloian duintasunez dihardute defenditzen euren maila Eibar Eskubaloiko ordezkariak azken urtean izandako jokalarien bajen ondoren. 1. Nazional Mailan jokatzen duen Somos Eibar Eskubaloiak denboraldi honetan goiko postuetako borroka alboratu eta multzoaren sailkapeneko erdialdean kokatu da (10. da egun, 16 taldetik), jaitsierako postuetatik nahiko urruti, eta seniorreko bigarren taldea, Haritza bera, egoera berean dago Lurraldeko 1. Mailako sailkapenean. Talde horrek ere ahaztu egin behar izan du iaz igoera promozioan izan zela eta, lehen taldera pasatutako jokalaria galdu dituenek, sailkapeneko erdialdean dugu gaur (7. da, 12 taldetik). Euskadiko txapelketetan diharduten taldeei dagokienez, emakumezkoen senior taldeak oso denboraldi polita dihardu egiten eta 5. da (13 taldetik). Txapelketa horretan jokatzen duten jubenil eta kadete mailetak Tekniker Eibar Eskubaloia aurreko denboraldietan baino kaxkarrago dihardute: zortzi taldeko multzoetan dabilta biak eta, jubeniletakoena erdialdean dagoen bitartean (4. da, 8 taldetik), kadeteenak sailkapena ixten du. Bestalde, lurralde mailako lehiaketetan dabilzate-



Eibar Eskubaloiko talde guztiak, aurkezpen ekitaldian. **Silbia**

nak horrela daude: jubeniletan, nesken taldea 5. postutik 8. erako sailkapena erabaki behar duen multzoan dago eta mutilena 13.etik 16. erakoa erabaki behar duenekoan. Kadeteetan ere, nesken taldea mutilena baino zertxobait hobeto dabil: neska 8. dira, 14 taldek osatzen duten multzoan; eta mutilek 17.etik 20. postura arteko borrokan daude murgilduta.

Davide Cerchik harrobi-lan bikaina egin du waterpoloko taldeekin



Waterpoloan ikaragarritzko jautzia egin du Urvat-Urkotronik klubak denboraldi honetan. Hasteko, emakumeen taldea atera dute eta, hori gutxi balitz, Euskal Herriko ligako lehen fasea bereganatu du Eibarko taldeak. Azken asteburuan bigarren faseari ekin zioten eta aurreko fasean bigarrenak izan ziren Bidasoa XXI-ekoen aurrean amore eman behar izan zuten. Gizonezkoen taldeei dagokienez, Euskal Herriko ligan jokatzen duen lehen taldea eroso dago sailkapenean (7. da 12 talde-

en artean) eta aurten ez du aurreko denboraldietan izan duen maila galtzeko arriskurik izango. 2. Mailan jokatzen duen seniorretako bigarren taldea ere eroso dago bere multzoan (5. da 10 taldetik). Harrobia ezin indartsuago ikusten da kirol modalitate horretan: kadeteetan, 1. fasean mistoetan eta ez mistoetan lehenak izan eta gero, bigarren fasea ere irabazte hasi zuten aurreko asteburuan. Infantil mistoetan, bestalde, eibartarrak bigarrenak dira zortzi talderen artean.

Q
Euskadi
2007

Q
Euskadi
2009

La Salle
Eibar

*Urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era (biak barne)*

**HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA eta
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**



**La Salle Isasi eta
Azitain Ikastetxeetan**

AURREMATRIKULA ZABALIK
2017-2018 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleibar.com





PATXO TELLERIA
(antzerki-zuzendaria)

– Zer kontatzen du “Zergatik Jamil” antzezten duzuen obrak?

Thriller baten moduan egituratuta dago antzezlan. Tramari dagokionez, ustezko hiltzaile bat dago, Magrebeko jatorria duen gaztea. Kartzelan dago berak zaintzen zuen pertsona elbarritua “akabatu” eta gero. Konortea galdu ostean, oroimena ere galtzen du gazteak eta bere buruari galdera pila egiten dizkio, ez baita ezertaz gogoratzen, ez daki zer ezta zergatik egin duen ere. Zorabio eta ezinegon horretan murgilduta, hildakoa agertzen zaio eta bien artean, elkarrizketa zoro baten bitartez, iragana berreskuratzen dute. Aurreiritzi etnikoak eta heriotzari eta bizitzari buruzko hausnarketa landu nahi izan ditugu.

“Thrillerraren intrigak publikoa harrapatuko du”

Patxo Telleria autore eta zuzendari lanetan datorkigu “Zergatik Jamil?” obran. Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy dira *thriller* honetan parte hartzen duten aktoreak eta pertsonaien profileenatik ondoen egokitzen diren aktoreak direla adierazi du Telleriak, eta beraz berak oraingoan ez duela taula-gainean “tokirik”. Autorearen esanetan, obra publiko zabal bati eskainia dago baina bereziki harritu du 15-16 urtetik gorako gazteengan izan duen harrerak. Antzezlanaren 10ean ikusi ahal izango da Coliseoan, 20:30ean, 10 euroko sarreraren truke (Coliseoaren Laguna 7€).

– Publikoak ere detektibe lana egin behar du?

Bai, horrekin jokutzen dugu. Azken finean thriller batek egoerei aurrea hartzea eskatzen du, norberak bere usteak eta hipotesiak lantzea. Zer gertatu den eta zer gertatuko den imajinatzen dugu etengabe eta normalean aurreiritzi batzuk ditugunez, horiekin funtzionatzen dugu. Hala ere, autorearen lana da publikoa engainatzea eta bere kartak behin eta berriz ezkutatzea. Hainbat tokitan taularatu dugu jada obra eta ez dago publiko zehatz bati zuzenduta, teatroaz gozatzerantz animatzen den guztiarentzat egindako lana da. Normalean guk komedia erabiltzen dugu, zerbait kontatzeaz gaiz, jendeari antzer-

kiaz gozatzeko aukera emateko. Ez dugu jendea sufritzerara eraman nahi, edota tesi bat ikustera. Kasu honetan thrillerraren intrigak publikoa harrapatuko du.

– Zein da lan honen helburua?

Mami apur bat daukan antzerkia beti egiten da barruak astintzeko helburuarekin, baina ez nuke handinahiegia izan nahi eta ziurrenik ez dugu inoren pentsamoldea aldatuko. Dena dela, nik uste dut gauza hauek onuragarriak izaten direla beti. Ez dugu helburu pedagogiko hutsekin egin, baina pedagogikoki oso egokia dela esan behar da eta gaiaren inguruko hausnarketa egiteak, sarritan balio izaten du bakoitzaren sentsibilitatea afinatzeko.

Lagun Taldekoak, arrakasta errepikatzeko prest

Aurreko zapatuan estreinatu zuen Lagun Taldeak bere dantza eta musika ikuskizun berria: “¡Se abre la sesión!”, epaiketa azkarren inguruan sortu duten lana. Urteroko moduan, Hezkuntza Esparruko aretoan erakutsi zuten umorez gainezka egiten duen ikuskizuna eta bihar bigarren emanaldia eskainiko dute, 17:30ean Hezkuntza Esparruan (sarrerak 2 euro balio du). Nahi izanez gero, aurreko asteburuko argazkiekin osatu dugun bilduma www.etakitto.eus helbideko mediatekan ikus dezakezue.



Lagun Taldekoek ikusleek bezain gozatu zuten ikuskizunarekin.
Maialen Belaustegi



Idazlearekin Harixa Emoten hilaren 7an

Datorren martitzenean Harixa Emoten literatur tertulian **Bea Salaberri izango da**, “Baionak ez daki” liburuari buruz berba egiteko prest, 19:00etatik aurrera Portalean. Egilearentzat lehen narrazio liburua izan dena osatzeko hogeita hamahiru kontakizun labur idatzi zituen. Susa argitaletxeak 2015ean argitara emandako liburuan eguneroko bizitzako gertakari sinpleetan ipintzen du arreta eta irakurleek horri guztiari buruz idazlearekin hitz egiteko aukera izango dute.



“Aida” opera bihar Coliseoan

Giuseppe Verdiren “Aida” operaren proiektzioa eskainiko dute zapa-tuan Coliseo antzokian (2. aretoan), 19:00etan. Saioa Sidneyko badiatik emango dute, lau ekitalditan (2 ordu eta 37 minutuko iraupena) eta sar-rerak 9/11 euro balio du.

Sukaldaritza energetikoa Silvana Huegunen eskutik

Natural Bio-dendak sukaldaritza eta elikadura energetikoaren inguruko ikastaroa antolatu du otsailaren 16ra-ko eta martxoaren 2 eta 16rako, 18:00etatik 20:30era Portalean. Irakas-lea Silvana Huegun dietista-nutrizionista izango da eta kursoan teoria eta praktika uztartuko dituzte. Alde teorikoan landuko diren gaien artean elikadura energetikoaren oinarriak, elikadura osasuntsuagoa 10 pausotan, egun baterako menua, aste osorako menua nola antolatu, garbitzeko dieta ezberdinak eta norberarentzat komenigarriena zein den eta gure dieta urtaro bakoitzera moldatzeak duen garrantzia daude. Eta alde praktikoan, berriz, zereal integralak, pate begetalak, algak eta beste hainbat sukaldatzen ikasteko tartea izango da, baita barazki ezberdinak nola egosi behar diren eta postre osasuntsuak nola prestatu ikasteko ere. Izena emateko zein informazioa eskatzeko Natural Bio-dendara joan dai-teke (Bidebarrieta, 6) edo 943567159 telefonora deitu.



Bularretik Mintzora hitzaldi-zikloa

Juan San Martin Udal liburutegiak eta Euskara sailak antolatuta, hitzaldi bik osatzen duten Bularretik Mintzora guraso-tailerra eskainiko dute. Lehen saioa otsailaren 28an izango da (martitzena), 18:00etatik 20:00etara Portaleko areto nagusian. Hizlari-riak Juan Kruz Igerabide eta Itziar Zubizarreta izango dira eta Haur Literaturari buruz jardungo dute: literatura unibertsalaren eta gu-rearen ikuspegi bat landu eta euskal haur literaturako poesia, kanta, joko eta abarren tradiziozko ereduak ere erakutsiko dituzte. Eta bigarren saioa martxoaren 1ean izango da (eguztena), 18:00etatik 20:00etara Portaleko areto nagusian. Horretan Haur Literaturak haurren garapenean duen garrantziaz egingo du berba Juan Carlos Alonsok. Izena emateko azken eguna otsailaren 19a izango da eta horretarako hainbat aukera dago: ikas-tetxean, umearen irakasleari esan dakioketo edo, bestela, udal liburutegira zuzenean joan, telefonoz deitu (943708437) edo liburu-tegia@eibar.eus helbidera idatzi.

Bularretik mintzora
Guraso tailerra

Otsailak 28:
Haur Literaturari buruzko hitzaldia I. Hizlariak: Juan Kruz Igerabide eta Itziar Zubizarreta

Martxoak 1:
Haur Literaturaren garapenean duen garrantziaz berba Juan Carlos Alonsok

Non:
Portaleko Areto nagusian, 18:00 - 20:00


Izen-ematea:
(bitartean 19a arte)
Ikastetxean, umearen irakasleari esanda
Udal liburutegian, telefonoz (943 708 437)
edo liburutegia@eibar.eus

Pagatzaren zine-forum saioa

Pagatxa emakumeen elkarteak antolatuta eta Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuta, gaur 19:00etan “La flor del desierto” filmaren inguruko zine-foruma egingo da Portalean. Pelikulak Waris



Dirie-ren bizitza kontatzen du: Afrikako nomada batzuen alabak 13 urte zituenean ihes egitea erabaki zuen, gurasoek gizon nagusi batekin ez ezkontzeko. Filmak top-model eta Afrikan Nazio Batuen enbajadore berezia izatera nola ailegatu zen erakusten du.



Biharrian-en proiektzioa

Biharrian-ek “Aloys”, Tobias Nölle zuzendari suitzarraren filmaren proiektzioa antolatu du domekarako, 18:30ean Biharrian espazioan (Ubitxa 16-18).

40 urte musikaz blai

Gaur 20:30ean kontzertua emango du Bilboko Koru eta Ganbera-orkestrak, 40 urteko ibilbideari erreperaso emango dion erreperatorioarekin. Hilario Extremianak zuzenduko duen musika taldea abesbatzako 20 kidek (sopranoa, kontraltoa, tenorea eta baxua) eta orkestrako partaide diren beste horrenbeste lagunek osatzen dute (biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, flauta, zeharkako flauta eta klarineta). Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

MUSIKA 40 URTEOTAN
40 AÑOS DE MÚSICA

Bilboko koru eta ganbera-orkestra
Coro y orquesta de cámara de Bilbao

otsailak 3/ febrero 20:30 8 €
teatro COLISEO antzokia



IKER ARANBERRI

Euskera eta itzulpengintza

"Hizkuntzarekin daukagun arazorik handiena itzulpenarena da". Bernardo Atxagak azken aldiain hainbatetan esan duen esaldia da horixe. Ez da ari literaturaz edo nobelagintzaz. Biologiako, kimikako, arkitekturako, arte ederretako edota medikuntzako ikasleek, adibidez, erreferentziako liburuak euskaraz edukitzeko eskubideaz eta beharraz ari da Asteasuko idazlea. Euskara normalizatzeko eta bere biziraupena bermatzeko "itzulpenarena estatu auzi bat da", dio Atxagak. Eta zerikusi handirik ez duela jakinda ere, euskaratik beste hizkuntzetara eginiko itzulpengintzak eman duen akats politenetakoa etorri zait gogora. Jakina da euskal arrantzaleek ia 1.000 urte eman zituztela baleak arrantzatzen, gutxi gorabehera 670. urtetik 1670. urte aldera arte. Oso trebeak ziren eta itsasoko animalia erraldoi guztiak oso ondo ezagutzen zituzten. Horien artean, orkak. Eta konturatu ziren, arrantzaleek egin bezala, orkeke ere baleak arrantzatzen zituztela elikatzeko. Ondorioz 'bale hiltzaileak' ezizena jarri zieten orkei (alegia, baleak hiltzen dituzten animaliak). Goitizen horrek arrakasta izan zuen eta handik gutxira gainontzeko hizkuntzetara itzulia izan zen, esaterako ingelesera. Ingelesez 'whale killers' deitu zieten orkei, euskaratik itzulpen fidela eginez. Baina nolako itzulpena egin zuten espainiarrek? Nola deitzen zaie orkei gaztelaraz? Hori da, jakin badakizu: 'ballena asesina'. Itzulpena oker egin zuten noski, 'asesina de ballenas' izan beharko lukeelako. Izan ere, orkak ez dira baleak, izurdeen familiakoak baitira.

Ilargi_Fest jaialdia hartuko du Gaztetxeak

Nalua Eibarko Feministek eta Nü Shu Ermuko Gazte Feministek elkarlanean egun osorako egitaraua presatu dute otsailaren 11rako. Diotenez, *"erasoak salatzeaz gain edo egoera zailetan kaleak hartzeaz gain, feminismoa gozatzeko ere badela azaldu nahi dugu eta, beraz, dantzatzea, abestea edo halako festak egitea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu"*.

Otsailaren 11n jolasekin eta poteo musikatu batekin emango diote hasiera egitarauari eta afariaren ostean ha-

siko dira kontzertuak, Eibarko Gaztetxean. Zarauzko Mor More taldea, Madrilgo La Otra bakarlarria eta, amaitzeko, Eibarko Mugi Panderoa-ko kideak taularatuko dira. Azpimarratu dutenez, *"gau horretan ilargi betea egotea ez da kasualitatea, hortik jaialdiaren izena, eta gauerdia iristearekin batera Lasarteko dantzarien sorgin-dantzak hartuko du Gaztetxea, kontzertuei tarte bat eskatuz. Ziur gaude gau berezi eta polit bat izango dela, eta gogoratu, dantzatu ezin bada ez dela gure iraultza!"*.



Prestatu dute UEU-ren udaberriko eskaintza

Udako Euskal Unibertsitateak prest dauka udaberriko ikastaro-eskaintza. Izena emateko aukera zabalik dago eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da. Hauek dira maiatza bitartean emango diren ikastaroak: on-line eskainiko dituztenak "Euskal Mitologia: kultura ondarea", "Kolorezko zenbakiak. Matematika lantzen erregleten bidez", "Lurraldean ulertu eta aztertzeke beste modu bat. GIS librea eta Geoprozesamendua (QGIS)", "Nola hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan" eta "Sormen laborategia" dira; eta ikasgelako eskaintzaren barruan, berriz, Iruñean "Adimen emozionala", "Argazkigintza digitala: zure reflex kamera ezagutzen", "Bulba duten mutilak eta zakila duten neskak, haurren eta gazteen artean" eta "Psikomotritate, mugimendu eta joku libre" emango dituzte, Eibarren "Adingabeak eta internet: arriskuak eta nortasun digitala", "Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia", "Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan", "HTML aurkezpenak egiten Reve.al.js plataformarekin" eta "TELP (taller d'espai lingüistic personal) tailerra" eta Gasteizen "Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktkarako aukera berriak birpentsatzen". Informazio gehiagorako eta matrikula egiteko www.ueu.eus helbidera jo daiteke.



"Umorea", hilaren 14rako bakarriketa

Jose Cruz Gurrutxagak eskainiko duen "Umorea" bakarriketarekin barre egiteko primerako aitzakia izango da otsailaren 14an. Interpretazio munduan aspaldidanik dabilen Azkoitiko antzezlea oraingoan hitz-jokoz eta umorez gainezka egiten duen lanarekin etorriko zaigu. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako saioa Portalean izango da, 19:00etan hasita.



"Jainko Basatia" ERMUAN

Gaur 22:15ean Ermua Antzokian "Jainko basatia" antzezlan aurkeztuko du Txalo konpainiak. Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Tessa Andonegi eta Andoni Agirregomezkorta antzezleek jardungo dute komedia dramatiko honetan. Sarrerak 10 euro balio du.



Irakurketa dramatizatua SORALUZEN


Gaur gauean, 22:15ean, Soraluzeko Herriko Antzokian, Xabier Leteren poemak oinarri hartuta, Ane Artetxe harpistak, Amaia Ruiz de Galarreta eta Amaia Irazabal aktoreek hitzak, musika eta antzerkia uztartuko dituzte hiru ordu laurden inguru iraungo duen emanaldi laburrean. Sarrerak 3 euro balio du.



Inun abeslaria ELGETAN

Bihar 19:30ean Elgetako 13 Spaloia kafe antzokiak musika emanaldia hartuko du Mikel Inunziaga "Inun" abeslariaren eskutik. Zornotzako musikariak "Da nola" diskoa kaleratu zuen iazko urrian, hainbat idazle euskaldunen olerkiekin.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Lola Lopez Mazo-Santin. 94 urte. 2017-I-26.
- Isabel Urizar Irisarri. 55 urte. 2017-I-26.
- Lorenza Molinero Martin. 89 urte. 2017-I-28.
- Arcadia Gutierrez Martinez. 89 urte. 2017-I-28.
- Felix Gandiaga Artetxe. 82 urte. 2017-I-29.
- Eduardo Larrauri Otegi. 84 urte. 2017-I-29.
- Inma Santos Zalduegi. 53 urte. 2017-I-30.
- Juan Matias Bastida Torrontegi. 60 urte. 2017-I-31.
- Juli Lazpita Areitio-Birtzinaga. 87 urte. 2017-II-1.

jaiotakoak

- Mariam Beibachir Lamas. 2017-I-23.
- Elene Gestan Galan. 2017-I-26.
- Ander Azpiri Gortovliuk. 2017-I-26.
- Mikel Azpiri Gortovliuk. 2017-I-26.
- Rafael Nicolas Gheorghe. 2017-I-26.
- Souhail Hmouri. 2017-I-27.
- Marwa El Moussaoui. 2017-I-28.

farmaziak

- Barixakua 3
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 9
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 10
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | 4 | 9 | | | | |
| 4 | | | | | 6 | 9 | | |
| 1 | 2 | | 8 | | | 4 | | |
| 6 | 8 | | 5 | 4 | | | 7 | |
| | | | | | | | | |
| | 7 | | | 1 | 2 | | 8 | 6 |
| | | 6 | | | 7 | | 5 | 4 |
| | | 8 | 6 | | | | | 2 |
| | | | | 8 | 4 | | | 3 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 7 | 5 | 2 | 8 | 3 | 6 | 4 | 9 |
| 3 | 9 | 8 | 1 | 4 | 6 | 7 | 5 | 2 |
| 2 | 6 | 4 | 9 | 5 | 7 | 3 | 1 | 8 |
| 6 | 5 | 2 | 4 | 1 | 8 | 9 | 7 | 3 |
| 9 | 4 | 7 | 5 | 3 | 2 | 8 | 6 | 1 |
| 8 | 3 | 1 | 7 | 6 | 9 | 4 | 2 | 5 |
| 5 | 1 | 6 | 8 | 9 | 4 | 2 | 3 | 7 |
| 4 | 2 | 9 | 3 | 7 | 1 | 5 | 8 | 6 |
| 7 | 8 | 3 | 6 | 2 | 5 | 1 | 9 | 4 |

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 3

SAN BLAS LEHIAKETA

17:00/19:00. San Blas opilak Topalekura eraman.
20:00. Epaimahaiaren erabakia. Topalekuan.

ZINE-FORUM

19:00. "La flor del desierto". Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez. Pagatxak antolatuta. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

KONTZERTUA

20:30. "Musika 40 urteotan", Bilboko korua eta ganbera-orkestraren eskutik. 8 euro. Coliseoan.

Zapatua 4

ATE IREKIAK

11:00. Ate irekien jardunaldia. Aldatze ikastetxean.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena Haur Parkea. Astelena frontoian.

SANTA AGEDA

12:00. Santa Ageda batzen, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.
11:00etan elkartearen lokalean (Urkizu, 11) entsegua egingo da. Estaziño, Ibarkurutze eta Urkizun.

SANTA AGEDA

12:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren Santa Ageda kalejira. Urkizutik abiatuta.

LAGUN TALDEA

17:30. "Se abre la sesión" ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

UMEENTZAKO ZINEA

17:30. "Zipi y Zape y la isla del capitán". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

OPERA

19:00. "Aida" (G. Verdi) operaren proiektzioa, Sidneyko badiatik. Coliseoan (2. aretoan).

SANTA AGEDA

19:00. Sostoa Abesbatzaren kalejira ohitura zaharri eutsiz, J.B. Gisasola Musika Eskolako trikitilariekin.

SANTA AGEDA

19:30. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren Santa Ageda kalejira.

Domeka 5

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

PROIEKZIOA

18:30. "Aloys" (Tobias Nölle) filma. Biharran-en (Ubitxa 16-18).

Astelehena 6

IKASTEN

16:00. Sendabelarren foroa: "Alkatxofak eta pipperminak". Portalean.

Martitzena 7

IKASTEN

10:00. "Euskal Musika I" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik (Donostiako Ekintza ikastolako Musika irakaslea eta Zarautzeko parrokiako koruko zuzendaria). Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18:00. "Competencias emocionales" hitzaldia, gurasoentzat. Hizlaria: Baikara-ko Garbiñe Arrizabalaga. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten: "Baionak ez daki" (Bea Salaberri). Portalean.

ERABAKI BIOT

19:00. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguaztena 8

IKASTEN

09:10. Ibilaldia: Lasarte-Usurbil-Lasarte. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Ardantzatik (09:14ean Estaziotik).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 9

ZINEA

10:00. "Bake prozedurak munduan" hitzaldia, Paul Rios-en eskutik (Agirre Lehendakaria Centre). Armeria Eskolan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatue txean.

HITZALDIA

19:00. "Zoru klausula", Kaleratzeak Stop-ek antolatuta, gaian adituak diren abokatuen eskutik. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Otsailaren 7ra arte:

– PHOTOBAT BILBOKO ARGAZKI ELKARTEAREN erakusketa kolektiboa. (*El Corte Ingles-ean*)

Otsailaren 19ra arte:

– "20 URTE" erakusketa. (*Portalean*)

Otsailaren 28ra arte:

– SANTOS TOURIÑOREN argazkiak. (*Portalea tabernan*)
 – CARLOS ROMEROREN argazkiak. (*El Ambigú-n*)



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IKER, hillaren 7xan hiru urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, EKAIN, astelehenian 10 urte beteko dozuzelako. Laztan haundi bat etxekuen eta, batez be, Hiart arrebaren partez.



Zorionak, OIHANA, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Musu pillua etxekuen partez. Segi gure bizitzak alaitzen!



Zorionak, GARI, etzi 8 urte egingo dozuz-eta! Mutil haundixa eginda zagoz, edabe magikorik edan barik! Laztan haundi bat!



Zorionak, JUNE, domekan bederatzirte urte beteko dozuz-eta. Musu eta besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, XABAT, etzi hiru urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat Edurne, Asier, Urko, aitxitxa, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, UNAI, gure etxeko txikitxuari, gaur sei urte egittendittu-eta. Asko maite zaittugu!




Zorionak, URTZI, gure etxeko erregiak atzo lau urte egin zittuan-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, HAIZEA Iturbe, otsailaren 6xan urtetxua beteko dozu-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, Julen, txapeldun!, atzo 10 urte egin zenduaz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, amatxo ELI, domekan urtiak egingo dozuz-eta! Musu bat Lucia, Mara, Alain eta aitaxoren partez.



Zorionak, ANER, zure anian partez, domekan 13 urte beteko dozuz-eta.



Zorionak, IZAR, zure 13. urtebetetzian. 13 musu potolo famelixaren partez.



Zorionak, MIREIA, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Prest zagoz 3.0 bersiñuan sartzeko?



Zorionak, KATRIN, haraiñegun 8 urte egin zenduaz-eta. Musu bat etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

4an: 22:30
5ean: 20:00
6an: 20:30

"Frantz"

Zuzendaria: François Ozon



(2 ARETOAN)

4an: 19:45 (1 aretoa), 22:30 (1 aretoa)
5ean: 17:00, 20:00
6an: 20:30

"Lion"

Zuzendaria: Garth Davis



(ANTZOKIAN)

4an: 17:00 (1 aretoa), 19:45, 22:30
5ean: 17:00 (1 aretoa), 20:00
6an: 20:30

"La la land"

Zuzendaria: Damien Chazelle



(ANTZOKIAN)

4an: 17:00 (gazteleraz)
5ean: 17:00 (EUSKERAZ)

"Teresa eta Galtzagorri"

Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta ganbara. Tel. 665-733954 eta 629-449646.
- Baserría salgai Bergarako Ubera auzoan. 15 hektareako terrenoarekin. Berriztuta eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 653-332125. Nerea.
- Baserría salgai Elgoibarko San Roke auzoan. Lur-sailarekin: 5,8 hektarea. Tel. 650-749722 eta 943-203284.

1.2. Errentan

- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logelakoa. Tel. 689-571882.
- Bi lagunentzako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Ezinbestekoa igogailua izatea. Tel. 640-378020.
- Eibarko gazte batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 665-705978.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 697-754174.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. 2/3 logelakoa. Tel. 652-532589.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Autoak sartzeko pabilioia behar dut: 100 m² inguruko lokala. Tel. 671-846270. Ibon

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 688-723258.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-691242.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 632-026510.
- Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta p egorak garbitzeko. Baita 19:00etatik aurrera eta asteburuetan ere. Tel. 612-223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 692-314985.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 699-859881.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197835.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-420221.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-626975.
- Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. 5 urteko esperientzia. Tel. 622-321095.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-437852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-032117.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-561811.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde edo gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 658-638900.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-506715.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-110716.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 642-650900.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 603-683176.
- Gizonezkoa eskaintzen da lorezain jarduteko, mendian lan egiteko eta segurtasunean aritzeko. Tel. 666-655269.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-004773.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 638-421827.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gaez ere. Interna. Tel. 655-776380.
- Emakumea eskaintzen da gaez edo asteburuetan lan egiteko. Orduka. Tel. 655-677035.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Erizaintzan lizentziatutako neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 604-164719.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 660-114801.
- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da sukaldari edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbitzaile moduan. Esperientzia. Tel. 630-534587. Arantza.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-221729.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-552986.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 631-979558.
- Neska arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 671-366568.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 695-917617.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-793101.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 656-866255.

4.2. Langile bila

- Kamarera/oa behar da lanaldi osorako Eibarko taberna batean. eibarkafe@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Heziketa Zikloak eta Selektibitateko klase partikularrak ematen ditut. Tel. 685-739709.
- Arkitektura ikasketak ditut eta Batxilergo Teknikoko eta DBH 3. eta 4. mailako klase partikularrak (Matematika, Fisika eta Kimika) emango nituzke. Tel. 679-843282.
- Marraketa Teknikoko klase partikularrak ematen dira. LH, Batxilergo eta Tekniko Mekanikoko maila guztiak. Tel. 675-713153.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Senar-emaztearendako logela eta bi oheko beste bat salgai. Gutxi erabilitakoak eta merke. Tel. 661-075520.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko astean ezkontz-eraztuna (urte zuria eta horia) galdu nuen Eibar erdialdean. 2016-VI-4 data darama. Ordainduko da. Tel. 652-771377.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa **Arreta arazoak**
Disfonia Berba arazoak
Ikaste-arazoak Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ONA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Klinikka

• **Presbiziaren kirurgia.**

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

Tel. 605 75 75 06

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

 **SEXOLOGIA ZENTROA**

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zbkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Aur re matrikulak

Urtarrilaren 30etik Otsailaren 10era

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94
1, 2, 3 eta 4



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89
2, 3 eta 4



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

euskal eskola publikoa

Talde osoaren ahalegina

aurrematrikula egiteko epea urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

On-line aurrematrikula:
www.hezkuntza.net

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

2017-2018 IKASTURTEA



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78